DOHAN ZEURE ETXERAKO

1990ko Apirila/16 Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

...eta kitto!



EUSKAL JAIA

Gure herriaren nortasun seinale

Aurrekontu hiruikoztu batekin, jendearen erantzunaren zain

Zilarrezko Ezteiak ospatzen diren urte honetan, berriro ere maiatzaren azkeneko igandean gure kaleek halako distira eta soinu berezi batez esnatuko dira. Goizetik hasita, ehunka dituzte herriko bideak gure begien poztasunerako. Baina, zer edo zeintzu ote daude honen atzean? Eta zergatik horrelako ekitaldirik urtez urte? Jarraian jai honen inguruan biltzen diren zenbait datu interesgarri argituko dizkizuegu.

OSPAKIZUN GARRANTZITSUENAK

- **. 5ean: Afaria txiste-kontalari eta bertsolariekin.**
- **. 19an: ZORTZIKO Dantza ikuskizun paregabea.**
- **. 26an: Mikel Laboaren kantaldi berezia.**
- **. 27an: Euskal Jaiaren eguna.**

25 urte dira Eibarren festa hau ospatzen hasi zenetik, Zarautz, Lasarte, Donostia eta beste herri batzuei segituz. Hasiera batean S.C.R. Arrateren eskutik ekin bazitzaion ere handik urte batzutara Klub Deportiboko jendeekin bildutako komisio mixto batek ekin zion antolatze prozesuari. Barruan, lagun talde bat, alor ezberdinetan murgiltzen ziren pertsonaz osaturik, saiatzen zen heuren projektuak gero eta indar gehiago har zezan. Denbora horretan, azpimarratzekoak dira Ikastola Mogel inguruan hazitako euskaltzale harrobiaren lanak. Diru aldetik, beti erabili den kaleetako postulazioa alde batera utzirik, Aurrezki Kutxa Probintzialaren laguntza zen funtsezkoena, urte haietan hau izan bait zen ia aurrekontu guztien gastuak kitatzeko nahiko zena. Hau horrela izanik ere, ez da ahaztekoa orduko garaian politika mailan ematen zen egoera: frankismoaren azken urteak izaki, abertzaletasunaren gehitzearen heinean, herri guztia prest zegoen horrelako atxakiaz baliatzeko bere nahiak adierazteko. Adibide gisa, hamabost egun lehenago Astelena frontoian iragarritako jaialdian izaten ziren iskanbilak: lehenengo ikurriñak, frontoia txintxilizka, ordua pasa eta Goardia Zibilaren presentzia...

Halako giro baten erdian, J.L. Perez Sarasketa, jai hauen antolatzaile munduan egondakoa eta Amalur taldeko gaur egungo zuzendariaren esanetan, ez zen zaila kanpotik ere talde onenak ekartzea. Honekin lotzen badugu Eibarko taldeek ere igande baten lau leku desberdinetara jotzen zutela eta urtean 100 ekitaldi izaten zirela, zer nolako indarra erdiestera iritsi zen kontura gintezke.

• *Euskal Jairik Beroenak*

Gorengo gailurra, harrerari begira, 1968 eta 1974 artekoa izan zen, bereziki lehen bi urteak. Orduko egitarauak urria izaten zuen abiapuntu bezala; hil horretan, Eibarko taldeak berotzeko, Dantzari Eguna ospatzen zen Arraten, Santa Kurutzi eskeinitako omenaldiaren barruan. Euskal Jaiaren prestaketak negurako (Gabon aurretik) hasten ziren eta maiatzaren erdikaldean giroa pil-pilean zegoen. Umeentzat marrazkiak, bertsolaritza saioak eta, bereziki bezperako Kantaldiak Astèlenan -sarrerak agorturik Lertxundi, Lete, Laboa, Iriondo eta beste abeslariei entzuteko- izaten ziren egun bereziaren etorrera prestatzen zutenak. Kezka Eguna, oraingo Eibarko Dantzarien Egunaren aintzindaria, Euskal Jaia ospatu baino aste bat aurretik izaten zen, gaur egun bezala.

Igande handia heltzerakoan, goizeko bederatzietan ia 40 edo 50 talde biltzen ziren, bi mila gaztetxorekin guztira, Eibartik bakarrik zortziehunera ailegatzen zirelarik. Ezin kabituz hainbeste jende eta 5 lekutan banatzen zen eta bazkaltzeko ordua iristean soziedadeetara biltzen ziren; hemendik kultur ekintzetan hauen garrantzi handia, lehen esan bezala A.K.P.ren laguntzarekin batera (kartelak, egitarauak, dirua). Bestalde, Udaletxearen laguntasuna zerbitzuetara mugatzen zen (hesiak ipini, etabar), dirurik ez bait zuen eskeintzen. Talde onentsuenak -Baionatik ere bai- etorriz gain, gurdiak beterik ikusten ziren, hamaika karroza erakusten ziren eta ikusi gabeko dantzak dastatzeko aukera (adibidez, Oñatiko talde autoktonoarena) izaten zen, espektakulu kutsua itsasten zitzaiolarik. Amaitzeko, goizeko Kalejirak eta eguerdiko Alardeak arratsaldeko dantza saioari ematen zioten txanda; bertan, Eibarkoak "jai" eginez, lehenago bukatzeko eta ilundu baino lehen kanpokoek euren herrirantz abiatzeko autobusak hartzeko.

• *Aurtengoan egitarau bikaina*

Aurtengo edizioa: hilabeteko egitaraua, euskal kulturaren esparru guztiak ikutuz.

Maiatzak 5 betetzen duenean, larunbata izanez, gaueko 9etan Orbea pilotalekuan prestatuko den afari popularraz emango zaio hasiera XXV. Euskal Jaiari. Bertan Sebastian Lizaso eta Mañukorta bertsolariak, Joserra Galarraga eta Guillermo Segurola txistelariak eta Arrasateko fanfarreak alaituko dituzte, 1.500 pezetaren ordainez, joaten direnen entzumena.

Klub Deportibo eta Kezka, duela bi urtetik hona, antolatzaile modura dihardutenak, abendutik gutxi gora behera hasita laguntza bila ibili dira, aurtengo ospakizuna dela eta ahal den egitarau borobilena prestatzen. Horretarako dirua beharrezkoa denez hainbat tokira zuzendu dute heuren eskaerak. Kopuru gehiena Lan Kide Aurrezkiaren bidez eskuratu izan dute honek eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako komenio bati esker: "Kultur bideetan" deiturikoa, non Euskal Jaia sarturik dagoen. Udaletxetik Euskara eta Kultura Batzordeetatik jaso dute. Ondorioa hiru milioi baino gehiagoko aurrekontua da, iazkoa hirukoizten duena. Horrela, heuren asmoak benetazko eginkizunak bihurtzen saiatu dira, beste urtetako astebeteko egitaraua hilabetekoa bilakatuz 12 eta 13ko asteburua -gailegoen festak betetzen dutelako- bakarrik programatik kanpo utziz.

Astegunetan ere izango dira ikustekorik: 8an, asteartea, arratsaldeko 7'30etan "Gerrate karlistaren kronika" filmaren emanaldia izango da; 10ean, osteguna, 7etan eta Udaletxeko pleno aretoan Juan Mari Beltranen hitzaldia, Euskal Herriko musika tresnari buruz; 15ean, asteartea, toki eta ordu berdinean Pako Aristi euskal kantautoreari buruz ihardungo da; 18an, ostirala, 8etan eta Untzaga enparantzan "Hika" antzerki taldearen lan bat eskeiniko da eta 24an, osteguna, Udaletxean agote eta ijituen gainean Alizia Stürtze mintzatuko da. Bestalde, 17tik hasi eta 23raino Kima taldeak aurkeztuta, Udaletxeko kultur aretoan marrazki bizidunen erakusketa izango da.

18 eta 19ko asteburuan, beste emanaldi hauek izango dira: larunbatean, Untzagan, 6'30etan Umeen Jaialdia Jaione eta Pernandorekin. 10etan eta Ipuruako kiroldegira jo ezkero, Zortziko muntaiaren agerpena ikus dezakegu, hirurehun lagunek osatutako dantza, jantzi eta argiz osatutako lan modernoa, sarrerak aldez aurretik hartuta 500 pezetatan daudelarik; azkeneko orduan hogei duro gehiago kostatuko litzaiguke.

Igandean, Eibarko Dantzarien Egunaren barruan, gure herriko "aintzinako" dantzariek berriro ere biltzea dantza egiteko izango litzateke azpimarragarriena, duela urte batzu eginiko saioak gogoratuz. Arratsaldeko 6etan dantza solte txapelketa 14 urtez azpiko bikotearentzat ere iragarrita dago.

Maiatzaren azkeneko asteburuan aurtengo gorengo puntuan aurkituko gara.

Larunbatean Mikel Laboaren kantaldia entzuteko aukera izango dugu Unibertsitate Laboralean eta kanta sorta hau ahazteko denborarik gabe, igandean, goizeko hamaiketatik aurrera kaleak alaitzeko modu berezi bat izango da Eibarren jaun eta jabe, taldeetan banaturiko 900 gaztetxoei espaloitik euren gurasoen eskutik harturik beste hainbat jantzi tipikodun ume gehitzen badiogu. Betiko ohituraari segituz, eguerdian nahiz arratsaldean saioak izango dira eta, aldi berean, dultzaineroen eta fanfarre baten partaidetza sugurtatu daiteke, autobusak berriro martxan ipini arte. Orduan, aurtengoari agur esan eta datorrena prestatzeari ekingo diote antolatzaileek.

...eta gainera...

4. Orrialdean:
- **Rokodromoa Eibarko Polikiroldegian**

6. Orrialdean:
- **Euskadi Gaztea:**
  91,2 Megahertziotara/ orduko

FIAT
EIBAR HOGEI, S.A.
BITOR SARASKETA, 7
12 10 00
12 10 19

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK
ETESA
KOMERTZIALA

ARRATEKO IGOERA / EIBARKO BIZIKLETA

Txirrindularitzaren aldeko zaletasunaren indarra

Ekainaren 13an hasi eta 17ra bitartean iraungo duen bost etapako lasterketa honek nazioarteko txirrindularitzaren erdigunea bilakatuko du gure herria. Horrela, duela urte batzu talde baten asmo eta gogoak bultzaturiko proba hau goi mailaraino heldu eta zaletuen itxaropen gehienak betetzera ailegatu da.

Aurten izango den bira honi, edizio aldetik begira, 47. Arrateko Igoera eta 25. Eibarko Bizikleta saioak dagozkio. Bien arteko desberdintasunaren zergatia hasieratik eta 1987era arte bakoitza bere aldetik iraganean datza. Historiari begiradatxo bat ematen badiogu, Eibarko Bizikleta 1952tik 1972ra bitarteko urteetan bakarrik eratu zela ikus dezakegu; Arrateko Igoerak, aldiz, 1941ean hasi eta, egundaino, ia urtez urte jarraitu izan du gure artean, duela hiru urte, Eibarko Bizikletaren berragerpenarekin proba bateratu bat sortu arte.

IBILBIDEA ETA PARTAIDETZA (ETAPA ETA KORREDOREAK)

Egun batzu barru —maiatzaren erdikalde inguruan, J.Erasok,—batzorde antolatzailearen partaidearen esanetan— aurkeztuko den ekitaldiari buruz edukin azpimarragarririk soma daiteke.

Alde batetik, ibilbideari dagokionez, 5 egunetan zehar bigarren aldiz korrituko den lasterketa honek 850 Km. gutxi gora behera izango ditu guztira, etapa bakoitzeko bataz besteko portzentaia 170 Km.rena izango delarik. Lehenengoak, 12.etan Untzangatik irten eta Getxon izango du amaiera; bigarrenak, Getxotik Itziarko poligono industrialera eramango gaitu, Eibartik laurak laurden gutxi aldera pasa eta gero; hirugarrenak Deba eta Andoain arteko errepideak zapalduko ditu, Eibarko bideak ahaztu gabe: oraingoan hamabiak eta laurden pasatxo izango dira txirrindulariak ikusi orduko; laugarrenak Andoaindik Toribio Etxebarria kaleraino erakarriko du txirrindulari karabana, lau t'erdiak aldera; pixkat lehentsuago, eta aperitibo modura, Elgetara igon aurretik beste agertaldi bat ere izango da.

Amaitzeko, igandean emango den jardunaldian, Iurreta (ETBren egoitza) eta Arrateko helmuga lotuko duen zazpi mendiko etapa honetan zenbait aldakuntza nabari daitezke, funtsezkoena norabideen kasuan ematen dena izan litekeelarik: aurten, joan diren urteetan ez bezala, Debatik etorri beharrean Ermutik sartuko zaizkigu, hondartzara abiatzen den jendetzaren oztopoari ihes egiteko asmoz. Bestalde, esan beharra dago ere eibartarrok daukagun aspaldiko ohitura bateri, asteazkeneko "merkadillua"rena alegia, uko egitera behartuko gaituela itzuliaren hasierak, egunez aldatzen bait da, asteartera pasatuz.

Bestetik, partaideen zerrendan, Estatuko talde guztiekin batera —heuren gizon indartsuenekin—, 7 edo 8 atzerritar ere izango dira. Bost hauek dira kontratoa sinatu dutenak: Panasonic (Rooks eta Theunisse), Carrera (Maechler, Bontempi eta Giupponi), RMO (Mottet eta Caritoux), Buckler (Golz eta Van Hooydonck) eta Toshiba (Madiot anaiak eta Kappes). Talde bakoitza zortzi gizonez osaturik egongo da; beraz, ehun eta hirurogeiren bat urte bat ikus ahal ditzakegu guztira.

Iazkoak baino sei miloi gehiago suposatzen duen aurrekontu honek 54 miloira igotzen du. Laguntza handiena ETBren aldetik dator, bere proba moduan hartua bait dauka, azken datu honek (ez erosi beharrik izatea) suposatzen duen garantiarekin, probaren jarraipenari dagokionez. Bestalde, erakunde ofizialetatik jasotako diru kopurua %25era heltzen da.

Dena den, plangintza eta martxan ipintzeko ahaleginak batzorde mixto bateratu batek -Klub Deportiboko taldea eta Klub Ziklista Eibarres artean eratua- zuzentzen ditu. Bide onean aurkitzen direnaren seinale moduan, Erasok kontatzen zigunez, jarraian zenbait puntu

AURREKONTUA ETA EZAUGARRI BEREZIAK

adierazgarri azalduko ditugu: lehenik eta kokaguneari dagokionean, esan dezagun oso baliagarria gertatzen dela Tourraren prestaketari begira, hamabost egunen aldea bakarrik bait dago bata eta bestearen artean; antolakuntza arloan, Espainia mailan Txirrindularitza Profesionalen Nazioarteko Federazioaren txosten onena eskuratzeraino heldu dela aipa genezake; honekin loturik eta harrerari begira, aldez aurretiko kontratoaren sinadura, ez bakarrik hitz ematea, azpimarra daiteke. Eta, beste aldetik, datorren urterako helmugak emanak direla: Loiola (Loiola 91.aren ospakizunarekin) eta Tolosa, esate baterako.

Guzti hau lortzeko, azpiegituraren indartzea derrigortzat jotzen da. Kamioiak, trailerrak, autobus mobilak eta kamarek prestatzen dituzten zerbitzuek ezinbestekoak gertatzen dira, azkeneko berrikuntzarik ahaztu gabe; hala ere, motoristak, txoferrak eta helmugak eta pankartak montatzen dituztenak ez dira inoiz desagertuko.

Azkenik, gure elkarrizketatuak dioenez, datozen urteetarako asmoen artean bat da nagusi: proba ahal den gehiein kanporatzea, Nafarroaraino iristeko ideiaz. Beti ere, Eibar abiapuntutzat harturik.

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkien agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
"... eta Kitto Sariketa".

15. Aleko sariketaren erantzuna "Otaola Hiribidean dagoen baserria" zen. SARITUA: PELLO ZABALA LILI, J. Etxeberria kalean bizi dena. HURRENGO SARIKETARAKO MAIATZAREN 15erako bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!.

IKUSONIK DISKA SALDUENAK

EUSKARAZ
1. HERTZAINAK: "Amets prefabrikatuak"
2. BENITO LERTXUNDI: "Pasko gaierdi ondua"
3. AKELARRE: "Akelarre"
4. XABIER ETA PETER: "Funtzioa"
5. JOSELU ANAIAK: "Araiatik Jaliscora"

BESTELAKOAK
1. RADIO FUTURA: "Veneno en la piel"
2. BARRICADA: "Doble en directo"
3. NOTTING HIL BILLIES: "Missing..."
4. SINEAD O' CONNOR: "I do not want what..."
5. PHILL COLLINS: "But seriously"

IRAKURLEAREN TXOKOA

EREDU BILA

Kaixo lagunak:

Zuen aldizkariaren berri jaso dugu, eta aurpegi asko ez bada behintzat, kaleratzen dituzuen aleak eskuratu nahi genituzke. Barkatu lehen esana; gu euskararen aldeko konzienziatze lana burutzen duen taldea gara eta darabizkigun egitasmoen artean, badabil aldizkariarena eta zentzu horretan aberasgarri gertatuko zaigu zuon lana ezagutzea.

Gure eskariak harrera ona izanen duelakoan, jaso itzazue gure agurrik beroenak nola aldez aurretiko eskerrak.

Altsasun euskaraz taldea.

DROGAN

Hau dok miseria

Gerra ostea zen. Familia haundi ere bai, irabazia motza eta arropak halamoduzkoak. Miseria gorria. Afaltzeko ordua zen. Aitak prakak apurtuta zeuzkan aurrekaldetik eta dokumentazio guztia bistan.

—Aita, zer dira horiek?
-alaba gazteak.
—Hauek? Potroak.
—Tira gizon, umeen aurrean ez da horrelakorik esaten - andreak haserre.
—Ez, daukaten gosearekin esaiezu arrautzak direla.

Alkahuete

Eibartar bat eta plaentziar bat beren familietako gorabeherak kontatzen ari ziren.
—Alaba zaharrena estudiatzen jaukau - eibartarrak.
—Zer estudiatzen jok ba?
—Interprete edo.
—Interprete ? Zer dok ba hori?
—Etxakixat, baina batak esaten duena besteari kontatzea edo izan behar jok.
—A, guk horri Plaentzian alkahuete deitzen jotsau.

ERREDAKZIOAREN OHARRA

Oharra: joan zen "... eta kitto"-ko "gure artean" azaltzen zen datu bat zuzentzeko beharrean aurkitu gara, hain zuzen: Zipitriak ez zuela Bergaran klaserik eman beharrezkoa gertatzen zaigu. Interpretazio okerrik egon ez dadin honako ohar hau argitaratzen dugu. Besterik gabe barkatu izandako okerra eta eskerrikasko irakurle jarraitzeagaitik.



Gazte gara Gazte

HARTZAREN KOBATIK

Beethoven berriak

Musikaren historiak ezagutu duen konposatzailerik onenetakoen artean koka dezakegu Ludwing Van Beethoven. Nahiz eta musikaria izan, bere azken urteetan gaitz mingarri bat sufritu behar izan zuen: gorra geratu zen. Bere entzumenaren falta hori, ez zen oztopoa gertatu bere obrarik nagusienak, hots, guztiok buruan ditugunak, burutzeko. Horrela, bederatzigarren sinfonia eta laukote ugari.

Arrazoi franko entzuten ohi dugu gaur egungo musikaren kontra, zaratatsua, deskonpasatua eta narraxa dela, esate baterako. Agian, arrazoia ez zaie falta rock eta antzeko musikak gaitzesten dutenei, baina gauza bat oso argi daukat: musikarentzat "urrezko garai" izango den baten atarian aurkitzen gara.

Beethovenen exenpluari jarraituz, gazteok gure gorputza konposatzaile dotore bat izateko prestatzen ari gara, baina, solfeo ikasketak oso neketsuak izanik, entzumen ezaren alorrean imitatzera mugatzen gara. Asmo honetan, tabernariek dugu lagungarri fin eta nekaezinak, beraiei dagozkien promozio kulturaleko lanak burutuz. Horregatik, musika ahal duten bolumenik altuenean jartzen dute, aparailuek sortutako burrunba bere tabernetan dauden gazte guztien tinpanoak desegingo dituen esperantzan.

Horrela, hainbat eta hainbat gazte gorturik utzi eta gero, Beethoven berri bat, edo zergatik ez, makina bat Beethoven sortzeko kantera ezin hobea suertatuko da. Nik ez dakit kanpaina zaratatsu hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesean badator, baina hori horrela ez bada, tabernari hoiek subentzio bat merezi dute musika ederra bultzatzeko baldintzak jartzeagatik; eta, zer esanik ez, bere burua tortura ozen eta zaratatsu bateri pozik prestatzen diren gazteak, gure herriaren hobekuntza kulturalaren alde egundoko sakrifizioak eginez. Ene ustez, xoxen bat ere merezi dute, bere entzumena galtzea musika ederra sortzeko asmoz saritzekoa bait da. Gauzak horrela, Eibarren kontatzen den txiste zaharra egia bilakatuko da: Chopin konposatzaile ospetsuak eibartarra zela, alegia, Txomin deitzen bait zen. Gure tabernek erabiltzen duten bolumena ikusirik, konposatzaile askazi izugarri bat izango dugu Eibarren hemendik lasterrera. Arregi Jauna, hori bai merezi duela eskuzabal izatea.



GAZTE PROBLEMATIKA:

"laisser passer, laisser faire" menpean?

Titularrean adierazitako tesiari baietz erantzuteari ez deritzogu gehiegikeria denik. "Jokaera" honetara bultzatzearen zergatiaren arrazoi ugari eta tankera askotarikoren artean bi aipa genitzake, garrantzitsuenak bezala: batetik, gazte sektoreen aniztasuna -adina, gustoak eta abarri kasu egiten badiogu-; bestetik, iragapen edo trantsizio prozesu bat izatea, ume izatetik helduen mailaraino iristean amaitzen dena. Hala eta guztiz ere, duela urte batzu Udalaren enkarguz buruturiko estudioek eta, oraintsu, "Gazte plataforma"ren eratzeak, instituzio mailan nahiz interesatuen aldetik soluzioak aurkitzeko posibilitateari ez dietela uko egin ematen du aditzera.

Gazteen Nazioarteko Urtea ospatu zen, baina urruti geratu da. Ordutik, luzegaitza gertatzen ari den geldialdiak irauten du eta gazteen egoerak, bitartean, nolabaiteko aldakuntzak nabaritu ditu. Gizarte mailan duela hogei urte aktiboki kultur krisian parte hartu zutenek, gaur egun geldo jasaten dute ekonomia arloan bizi den krisialdia. Horrela, 80. hamarkadako gazteek historikoki desabantail posizio batetik abiatzen dira, belaunaldi hezitua bihurtuz: gazte gehiago enplegu gutxien dagoenean eta, aldi berean, eman zen eraldakuntza politikoan adinagatik ezin parte hartzeak dakartzan eragozpenekin. Horra hor indartsua eta itxia den gazte azpikulturaren sorteraztearen zergatia, bere mundu berezi eta identifikazio iturri bezala.

Estatu mailan, frankismoaren garaiak atzean utzirik, gainbegirada batean, hiru sasoi ezberdin bereiz ditzakegu. Lehenak, 1979 eta 1983 arteko urteei dagokio; bertako gazte politikan planteamendu utiopikoak dira nagusi eta "iraultzaile" izaerari erantzuten saiatzen dira gehienbat, administrazioaren laguntza aurrekontuetan % 0,12 eta 0,64 artean mugitzen delarik. Bigarrenak, 1983.ean hasi eta Gazteen Nazioarteko Urtea du gorengo puntu bezala; hau aprobetxatuz, gazteen problematika kaleratuz gain, mass-mediara salto egiten du, aurreko etaparen estrategiaren ezak pragmatismoaren bideak zabaltzen dituen heinean. Aurrekontuetan ere aurrerapausu hori nabari daiteke, oraingoan %0,78 eta 0,81 arteko mugetan kokatzen bait da. Hirugarrenak, orain bizi dugun impasse guneak, propaganda aparatoa desagertzen doan neurrian, modan ez dauden gauzei gertatzen zaienez, beste sektore batek hartu dio txanda jendarteko begi-puntuan, 3. Adinekoek kasu honetan.

Euskaditik irakurketa bat egiterakoan ikusten da gazteen gaiak gero eta gutxiago saltzen duela, Diputaziotik jasotako subentzioaren urritasunagatik hasi eta Eusko Jaurlaritzako Sailarteko Komisioaren desagerpenarekin jarraituz; ba litekeena da instituzioaren lan guztia "kolonien politika"-ra mugatzea, hortik kanpo oso gutxi egina bait dago. Mementu honetan, Eusko Jaurlaritzaren ahalegin gehienak irudiari murrizten dira eta gogotik heltzera ailegatu den gai bakar moduan, drogaren arazo larria jo dezakegu.

Ez da ahaztekoa, hala ere, gazte elkargoen erantzun beharra, gaztetxearen kontua kasuko, asko, duela hiru urte zabalduak eta orain ixteko arriskuan. Bilbo Zaharrean dagoena, bere asanbladako gestio eta guztiz, funtzionamendu egoki baten gisa har liteke. Bestalde, Gazteen Etxeak edo "gaztetxe ofizialak" gutxi dira oraindik.

• EIBARKO GAZTERIA 84EAN

Eibarren, gazteen gainean buruturiko azken inkestak 1984. urtean Siadecok eginak dira. Bertan azaltzen denez, askatasuna eta honekin loturiko zenbait gai nagusitzen dira gazteen nahietan. Interferentziak, aldiz, ez dituzte hain gogoko: adibidez, ideologia edo erlijio mailan ematen direnak instituzioaren eraginekin bateratzen dira, negatibotasun aldean. Adiskidetasuna, giza-eskubideak, lana eta maitasuna dira musika, elkarbizitza, euskera -hau, %65en onespena eskuratuz-, kirola eta ekologiaren aurretik gehien interesatzen zaizkien gaiak. Bestalde, erakarpen gutxien sortarazten dieten artean, ejerzitoa da aurrena.

Diru gehien tabernetan gastatzen da; jokoan doanak ez du inolako garraintzirik. Aurreratzen dena bestalde, gehienbatek bidaietarako -abentura zaletasuna, argi dago- gordetzen du, familiaren laguntza bezala eta erropatarako erabiltzea arraroa ez bada ere.

Hutsuneak betetzen hasteko orduan, gazteen ustetan musika jaialdiak, gazteentzako elkartegiak eta kirol instalazioak dira printzipalenak. Ikus dezakegunez, ekimen publikoaren zerbitzuak; ekimen pribatuari dagokionean -kafeteriak, diskotekak-, eskariaren tamaina nahikotzat jotzen da.

Estudio hau Gazte Kontseilu baten sorkuntzaren aldekoa zen, Udaletxetik bultzaturik eta bileretan gazte presentziaren aldeko promesak entzun ondoren.

Gaur egungo egoera, ordea, oso bestelakoa da. Udaletxeko dinamizatzailearen esanetan, lehen Zinegotziagoa izandakoa orain Ordezkaritza bilakatu da; gainera, Kultura Komisioaren barruan kokaturik dago, dedikazio esklusiborik gabe. Aurrera daraman lana gauza puntualak betetzera mugatzen da, egitarau ezak eta arduradun faltak dakartzaten ondoriak.

Gaztediaren erantzunari dagokionez, Antzerki Komisio Aholkularia, koadrillak -Sanjuanetan Ihauterietan baino gehiago- eta gazte asanblada izendatu batekin aurkitzen gara; beraz, ezin daiteke esan erlazio handirik dagoenik Udaletxea eta gazteen artean.

Lokalei buruz, baiezta daitekeen bakarra zera da: ez daudela. Adibidez, Kili-Kolo kultur elkargokoek Amañako eskoletan bilerak egitera beharturik daude. Arazo berdinekin topo egin dute apirilaren 4ean Kulturalean eratu zen "Gazte plataforma" taldekoek, asteazken guztietan San Andres elizaren parkean bilduko direlarik.

Hauek salatzen dutenari erantzunez, hots, "bigarren mailako espeziea bihurtu direla", beste jarrera bat azldu behar litzateke baina, I.L.A., kultur dinamizatzailearen ustez, ez da nabaritzen aldaketaren perspektibarik. Berak dioenez, arazoa ez da material edo ideiaren eza; pertsonalen faltan datza. Makrokomisio -Gaztediaren gain, Kultura, Kirolak eta Jaiak osaturikoabaten barruan nola dagoen, ezin da dedikazio esklusiborik izan. Horrez gainera, jendeen eskaerari erantzunez eta eskaparate gisa askoz ere lehentasun gehiago ematen zaio Jaiaren esparruari.

Nahiz eta hori horrela izan, eragozpen guzti hauen ezabapena lortzeko, gazte politika baten laborazioa, bere geroko garapenari begira eginikoa, funtsezkoena litzateke, hasi behetik eta Lanbide edo Etxebizitzaren Egitarauei atzea eman gabe.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70

MARGOLA
TINDATEGIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
Bista Eder, 6 Tfnoa: 11 12 49 EIBAR

TXUTXUFLETAS
• Karameloak
• Etxeko izozkiak
• Fruitu lehorrak
T. Etxebarria, 23. Tfnoa: 11 60 19

Rokodromoa Eibarko polikiroldegian

EIBARKO POLIKIROLDEGIAN ESKALADAN ARITZEKO ETA ENTRENATZEKO ARTIFIZIALKI PRESTATUTAKO BI HORMA DAUDE, HAUEK ROKODROMO IZENA HARTZEN DUTELARIK. BERTARA NOLABAIT MENDIA ETA ESKALADAREKIN LOTURIK DAGOEN JENDEA JOATEN DA, ETA HAUEK NORMALEAN 15 BAT BADIRA, ASTEBURUETAN ROKODROMOA PRAKTIKATZEN DUEN JENDEAREN KOPURUA BIDERKATU EGITEN DA

Kirol honi buruzko informazioa eskuratzeko kirol hau praktikatzen duen eibartar gazte batengana, Mikel Jauregirengana zuzendu ginen, eta honek zioenez, rokodromoa eskalada artifizialki egiteko modu bat izanik, rokodromoa eta eskaladak badituzte amankomuneko ezaugarri batzuk. Alde batetik eta materialari dagokionez, rokodromoan aritzeko beharrezkoak dira eskaladan erabiltzen diren zenbait material, soka bat, budriela, spress batzuk, "ocho" izenekoa eta "pies de gato" deitutako oinetako bereziak. Oinetako hauek balio duten 7.000 pzta adierazten digute kirol honetako materialaren garestitasuna.

Bestalde, kirol honetan murgiltzeko beharrezkoak dira zenbait baldintza fisiko: indarra, oreka eta malgutasun edo flexibilitatea. Izan ere, horma igotzen hasi baino lehen komenigarria da elastikotasun ariketak egitea, eta baita bukatzerakoan ere. Baina agian gauzarik garrantzitsuena kirol honetan, kontrol mentala litzateke, nahiz eta ezaugarri honek inportantzia gehiago izan 100 metrotara rokodromoan baino. Mikelek aditzera eman zigunez, "100 metrotara bakoitzak bere burua kontrolatu behar du nahi eta nahi ez; ezin zara inola ere ez urduri jarri. Baina rokodromoan distantziak askoz ere motzagoak izanik, autokontrolak ez dauka mendian daukan lehentasuna, nahiz eta sarritan polikiroldegiko zaratak eta oihuak pareta igotzen ari dena gogaitarazi".

Beraz, rokodromoak desabantaila eta alde txar asko ditu mendiarekin konparatzen baldin bada. Esate baterako, mendian hamaika aukera daude, hau da, zulo eta bide pilo bat, rokodromoan ez bezala. Zeren rokodromoan beti daude zulo eta heltzeko gauza berberak, nahiz eta egia den elementuak tokiz alda daitezkeela. Mikelek zioenez, "rokodromoan ez da existitzen mendian misterioak eta ez ezagumenduak sortzen duten lilura".

Hala ere, kontutan hartu behar da rokodromoa oso erosoa edo komodoa dela, eguneko edozein ordutan praktikatzea posible bait da herritik atera gabe, eta hemen eguraldiak ez duelako jokatzen ezinbesteko papera.

Goian esan bezala, Polikiroldegian bi rokodromo daude. Zaharrenak zortzi hilabete inguru darama, bere jatorria aipagarria izanik: iaz Donostiako Victoria Eugenian Espainiako kanpeonatoa ospatu zen, gero mundu mailako rokodromo-kanpeonatora joango zirenen selekzioa egiteko. Eta hain zuzen ere, Victoria Eugenian egon ziren panelak orain Eibarko polikiroldegian daudenak dira. Hala ere, Mikelek esan zigunez, orain dela 3 edo 4 hilabete eurek egindako bigarren rokodromoa aurrekoa baino askoz ere merkeagoa da. Lehenengoak 900.000 pzta eta bigarrenak 200.000 pzta kostatu bait zaio polikiroldegiari. Rokodromo berria kirol hau praktikatzen duen taldeak landu eta pintatu egin zuen, lan eta alegin handia izan arren. Hala ere, eta gogorik ez zaienez falta, rokodromoak eraikitzen jarraitzeko asmoa dute, eta agian polikiroldegitik kanpo ere.

"TAKIAN-POTIAN"

Programa barruan Literatur bi aurkeztu

"Elkar" Argitaletxeren laguntzaz

"BABILONIA": Giro erruraleko **Juan Mari Irigoien**

Altzarraren laugarren nobela, Karlismo garaiko baserri biko (Babilonia eta Moabe) bizilagunen arteko gorabeherak kontatzen ditu bere estiloko idazkera poetiko sinbolikoan.

Bere hitzetan esanda: "euskal animaren interpretazio egiten saiatu nauk, baina ez antropologoek bezala entsaioa eginez, literaturaren tresna eta euskarriez baliatuz baizik".

Hizkuntza aberatsa darabil ohi bezala Juan Marik, baina oraingoan euskalki desberdinetako ekarpenez baliatuz: hirugarren pertsonan ematen dena euskara standarrean, baina bizkaieraren zertzeladaz; lehen pertsonan gipuzkera ikutukoa eta biharrenean nafarrera kutsua dario.

Lurrari loturik dagoen nobela honetan mundu mitiko eta erreferentziala isladatzen ditu, beti ere sekuentzia laburrez orniturik.

Esandako guzti hori dela eta irakurlea istoriaren ariaren menpe jartzen du, besapean erabili beharreko liburua egiten delarik.

"Txakur Zaunkak Atean" Juan Martin Elexpuru"

Bergararraren azken lana dugu, herri-kontalaritza girilo lanez eta umorea darien ipuinez ornitua, imaginazio handia eta narratiba aberatsa erakutsiz. Hamar ipuinek osatzen dute liburua eta horietatik bi sarituak izan dira: "Bi begi eder haiek" Debako Tene Mujika sarian eta "Lasai, Juanatoni, lasai" Irun Hiri Lehiaketan.

Ipuinak laminen, sexu, erligio, misterio, pokitika... girokoak dira eta irakurlea arritu eta sorpresaz betetzea lortzen dute gehienetan. Horregatik liburua edo ipuinak irakurtzeari ekin ondoren gatxa egiten da alde batera lagatzea.

Zorionak Juan Martin eta, noizko hurrengoa?

SAGAZDE: Gazteen ideiak martxan jartzeko aukera bat.

Edozeinek du gaitasuna negozio bat jartzeko, baina askotan gazteok ez dakigu nora jo informazio hori eskatzera, eta gure ideiak azaltzera. Baita ere negozio bat zabaltzeko uste dugu ostopo asko jarriko digutela eta askotan gogoa kentzen digute aurrera jarraitzeko. Hau horrela gerta ez dadin SAGAZDE dugu.

"Gazteak negozio bat sortzeko lehen baldintza bezala, ideiak argi eduki behar ditu. Baita ere beharrezkoa edo hobeagoa da bokazio enpresariala edukitzea." dio Jabier Alkorta Burgoak.

Enpresari honek SAGAZDE entitatearen zuzendaritza darama Eibarren. Garapen eremu eta Zonen Baltzu Anonima Kudeatzaileak, "SAGAZDE"-ren xedea, erakunde bakar baten bidez enpresa berrien sorketarako eta aurretik daudenak berriztaketarako zuzendutako laguntzei eta subentzioei buruz informaketa osoa batzea eta eskeintzea da.

Gazte batzuk kamioneta bat hartu eta beren lehen lana horrela hasten dute. Baina badaude irteera gehiago. Eibarri begira zerbitzuak kontutan eduki behar dira, Eibarrek ez bait du zolu industrialik zabaltzeko. Horretarako komunikazioak hobetzen joan beharko dira Eibarrek zerbitzuetaz bizi nahi baldin badu. Ingenieritza, Konsulting despatxoak onak izangon lirateke area honetan jartzeko. Tokia guztiz kontutan eduki behar dugu. Ez da berdina despatxo edo denda bat toki baten edo beste baten zabaltzea. Orduan tokia ere guztiz garrantzitsua da. Ordenazioz kanpo izan beharko dira negozio hauek eta gainera kontutan eduki beharko dira beraien barnean erabiltzen diren teknologiak. Teknologi haurreratuak baldin badira askoz hobeto.

Negozio bat zabaltzeko lehenengo Enpleguko ofizinan apuntatua egon behar da, hau da, langabezi txartela edukitzea. Hau eduki ondoren laguntza asko daude gazteentzat: lan ministraritzak eta Euskal Gobernuak emanak. Azken honen laguntza nagusienak Autoenplegu egitaraua, Saustatzaile berriei laguntzeko egitaraua, lanari buruzko toki ekimenen egitaraua e. a. ditugu gure laguntzarako.

Negozio bat sortzeko eta dirurik ez baldin badugu abalista bat bilatu dezakegu negozio hori martxan jartzeko, hau ere oso garrantzitsua da. Horrela dira jokuaren legeak. Horregatik, negozio berri bat zabaltzeko gogo handia, bokazioa, eta lan egiteko grina eduki behar dira eta beti bezala sorteak lagundu behar du.

Edozein gaztek negozio bat zabaldu edo informazioa jaso nahi baldin badu, orain badaki SAGAZDE dagoela beraren zerbitzurako eta entitate honetara jotzen baldin badu informazio guztia emango diote, ongi atenditua izango da eta gainera dohainik. SAGAZDE entitate honek ia Gipuzkoa osoan ditu bere ofizinak: Azkenik eta bukatzeko eskerrak eman Jabier Alkorta Burgoa jaunari bere laguntza eta informazioa emateagatik.

FIRIN FARAN

BEKAK

Gazteei beti zerbait egitea gustatzen zaigu, baina horretarako diru kontuan pentsatu eta berehala itxaropenak agortzen zaizkigu. Hala ere badaude diru laguntza edo beka batzu.

Greziako hizkuntza eta kultura ikasteko, azaroak 8an bukatzen da epea, argibideak 4459044 telefonoan.

Musika, dantza, arte lirikoa eta antzerki arloetan trebatzeko eta ikasketak sakontzeko beka: Horretarako espezialitate artistiko hauei dagozkien akademi tituluak egiaztatu ditzakeen edozein espainian izan liteke jasotzailea, ikasturtea bat izanik, antzerki ikasturterako 750.000 ptz. ematen dira eta

"Censolar Bekak" eguzki energiaren zentruak organizaturik, eguzki energiaren proiektatzaile diploma lortzeko izango dira, eskatzaileak gutxienez BBB, LH edo pareko ikasketak eta 18 urtetik gorakoak izan beharko

Literatura sorketarako laguntzak: Kultur Ministraritzak egiten du eskaintza, olerkigintzarako eta narraziogintzarako laguntza, humanistika arloan obra orijinalen itzulpenarako, bakoitzari 12 beka emango zaizkio.

Baina beka hauek eta baita beste batzuek lortzeko egin behar diren "ekintza burokratikoak ez dira ahaztu behar: eskabide instantzia, curriculum vitae, egindako ikasketak egiaztatuko dituzten agiriak, proiektuaren txosten esplikatzailea, ikerketak egiteko norberaren ikastetxearen onarpena egiaztatzen duen agiria, hizkuntzaren gaitasun nahikoa egiaztatzen duen dokumendua; irabazien aitorpena, dokumentazio grafikoa eta askenez gastuen aurrekontua. Beraz pazientzia lagunak.

LEHIAKETAK

Beste aldetik, lehiaketak gustatu ezkero, hadi egon,... IV Argazki lehiaketa "Ermuko Hiria" dugu hurbilenetako bat eta bertan gai librea erabil daiteke. 3 argazki eskatzen dira, baina lehenagoko lehiaketetan parte hartu ez dutenak, Tamaina handiena 30x40 zm-takoa izan behar da. Txikiagokoak tamaina hortako kartulina batean erantsirik egion behar dira. Ohorezko saria: trofeoa, medaila eta 35.000 pzta; 3 lehenengoei 15.000 pzta eta plaka; bertako saria 10.000 pzta eta plaka. Argibideak, "Colectivo de fotografia Ostarku"-n aurkituko dituzue. Epea Ekainak 30ean bukatzen da.

Beste lehiaketa bat, V Uxola Narraketa Saria eta Poesia Literatur saria da. OHO, BB, eta UBI edo Lanbide ikasketak egiten daudenentzat. Gai librean argitaratu gabeko euskarazko lanak aurkeztu behar dira. Egile bakoitzak, makinan idatziriko lan bakar bat aurkezteko aukera izango du, berau hiru kopietan adierazia. Lanaren izenburua eraman beharko duen azalaren barne, egilearen datuak adieraztea nahitaezkoa izango da. Interesatuak telefono honetara dei dezakete: 654466.

IKASTAROAK

Eta hizkuntzaren bat ikastea baldin bada nahia, Europako herrialde desberdinetan badaude eskola batzu, horratara dedikatuak. Berlineko GLS Sprachenzentrum eskola, 18 urtetik gorakoentzat. 4 astetako kostoa 158.000 pztakoa da, Maiatzaren 7 eta 21ean, Irailak 3 eta 17an, Urriak 1 eta 15ean, Azaroak 5 eta Abenduak 3an dira hasiera egunak.

Centre Internazional détudes et Loisirs eskolak, Nizan. 16 urtetatik gorakoak. Gela bakoitzeko 5 ikasle. Maiatzak 20, Irailak 2 eta 23an, Urriak 14an eta Azaroak 4 eta 5an joan daiteke. Bi astetan 106.000, eta 3 astetan 156.000.

Academy Internacional Londonen, 16 urtetatik gorakoentzat. Familian, hiritik 15 kmtara. Maiatzak 14 eta 29an, Urriak 8 eta 22an joan daiteke. 2 astetan 56.000 pzta, 4 astetan 104.000.

Eta azkenez Erroman, Torre di Babele, "Centro de lengua y cultura italiana"-n, 16 urtetatik gorakoak. Ikasleekin pisuetan. 2 astetan 21.000, 4 astetan 38.000. Maiatzak 7 eta 21ean. Ekainak 4ean eta 28an, Irailak 4ean, Urriak 8 eta 22an, Azaroak 5 eta 19an, eta Abenduak 3an. Pisoaren prezioak 1.000-2.000, egun bakoitzeko.

Kili Kili
GOSARIAK
PLATER KONBINATUAK
GOIZEKO TRENATIK ZABALIK
EIBARKURUTZEA Tfnoa 11 24 01

ZUBIZARRETA
ZAPATEGIA
Gurea: gizonezkoendako zapatak.
Euritakoak eta gerrikoak.
Errebal, 21 Tfnoa: 11 23 43

The JAZZMAN
GARAGARDOTEGIA
Hanburgésak, Argentinoak, Venezianoak, Holandesak...
San Juan halea tfnoa: 70 06 82

"DEL DEBA" ETXEAGENTZIA
Pisuak eta lokalak
Industri-Pabeiloiak
Untzaga, 8
Tfnoak: - 11 05 37 - 11 83 16

ANE MIREN
MODAK
ESTAZIÑO, 1 Tfnoa: 70 19 62

TXURRUKA
OPTIKOAK
ZEURE ZERBITZURA
Bidebarrieta, 62 Tfnoa: 12 70 21

umea
Umeen eta gazteen arropoak
Errebal, 16 Tfno. 11 31 64 EIBAR

Zagora
Hizkuntzen liburudenda
C/Arragüeta, 7 tfno. 12 72 21
e i b a r

Pub PORK

Euskadi Gaztea 91.2 Megahertziotara / orduko.

1..., 2..., 3..., 4..., 5..... bostgarren martxa sartu dute oraingoan EITBkoek. 91.2 eta 94.7 Megahertziotako abiadura ezin hobeagorekin aurki genitzake indarrean dagoen musika eta euskararen arteko erlaziorik eztandagarriena: Euskadi Gaztea. Gaztea zerala? Segi irakurtzen. Ez zerala? Horra hor gaztetzeko aukera.

Euskadi Gaztea den erlazio eztandagarri hori gauzatzeko EITB-k Edurne Ormazabal izendatu du koordinatzaile bezela. Emakume Tolosar honi buruz gauza asko esan genitzake: bokaziorik gabeko psikologoa dela..., DEIA egunkarian eman ziola hasiera kazetal ihardueraari..., Donostiako Herri Irratian eta Antena 3an irratia ezagutu duela eta nola ez! 1987.eko iraila geroztik Euskal Telebistan Katu Kale musika saioa aurkeztu du eta aurkeztuko du ekainera arte. Nork eska dezake gehiago 26 urterekin?

Edurne Ormazabalek oraingoan ez du betebehar erraza, ikusentzute medioetan duen experientzia eta bere gaztetasuna kontutan izanik (nork jakin dezake zer den gustokoa gazte batentzako, gazte batek baino?), zaldi bategaitik apostu egin behar banu bere zaldiagaitik apostu egingo nuke eta ziur nago garaile suertatuko litzakeela.

Aukera baino, sortea izan dudala esan dezaket Edurne Ormazabal elkarrizketatzean, guztiz lanpeturik izan arren inolako oztoporik gabe Euskadi Gazteko ateak ireki dizkio "...eta Kitto"ri. Bilboko Euskadi Irratira heldu bezain laister, Edurne Ormazabalek harrera egin dit. Erakargarri den pertsona bat aurkitzen dut, bere lana aurrera eramateagaitik asko ematen duen hoietariko bat dela ikusten da. Lehen momentutik Edurne Ormazabalek gauzak argi dituela nabaritzen da, paper ausarta jokatzea tokatu bazaio ere eta limitazioak ugari izan arren, hauek gainditzeko asmoak indar ugari ematen dio etorkizunari baikor begiratzeko.

Euskadi Gazteak erabili behar duen formula oso ezaguna izan arren, azken finean musikaren erabilera, berrikuntza euskararen aldetik dator. Donosti, Bilbo eta Gasteiz artean banaturik dauden 12 pertsonen artean eta euskera medio delarik, euskal musika bultzatzeaz gain indarrean dauden tendentziak eta ateratzen diren diska berriak eskeiniko dizkigute, euskarak historikoki izan dituen mugak hautsiz.

Hertzainak edo M-ak euskaraz entzun genitzakeen bezela, Radio Futura eta zergaitik ez Soul II Soul, euskaraz aurkeztuak eta biziak izango dira. Edurne Ormazabalek garrantzi asko ematen dio airera botako duten musikari, gazteentzako eginiko musika soila izateari.

Lehen limitazioak aipatzen genituen eta Euskadi Gazteko koordinatzaileak adierazten duenez, zer egin handia du euskaraz "jerga" edo hizkuntza egoki bat sortzeko mikrofonoen aurrean gaurkotasuna duen musika aurkezteko. Borroka hau "Katu Kalen" dagoenetik mantendu izan arren hor dago eta gainditu beharra funtzeskoa da Euskadi Gaztea gauzatzeko.

Euskadi Gaztea ez da bakarrik euskara hutsez kaleratuko, musika programazioa bai euskaraz zein gazteleraz gauzatuko bait da, 7.00etatik 23.00tara bitartean. Gazteleraz Bilbotik eta Gasteiztik zuzenduko da baina ez dago zer esan beharrik itxaropena euskaran jarria dagoela eta hortan gaudenez eman diezaiogun aukera. Abesti zaharrak zioen bezelaxe "Euskarari eman dio, behar zuen Tornuia" orain eman diezaiogun aukera berdina oraingo erritmo eta musika soinuen bitartez.

Azkenik zer gehiago esan. Ikusentzun medioen garapenaren aro hau ea bilakatzen den euskararen hazkunde eta aurrerabidearen aroan. Izan dadila Euzkadi Gaztea horren oinarri eta sustrai eta hortan badabiltza jarri dezagun geuk geurea.

"HABEMUS FANZINEA"

Farra egun baten mutil talde bat bildu zen Eibarren eta beraien inkonformitatea agertzeko zerbait atera nahi izan zuten gizarte honetaz kexatzeko.

Baina panfleto bat egin beharrean, denen artean diru kopuru bat jarri zuten eta Fanzine hau kaleratu ahal izan dute beraien protestak gizarteari agertzeko.

Fanzine honen egile batzuk hauek dira: Alex, Biz, Batista, XXX, Jon e.a... Gazte hauek 18 eta 20 urte dauzkate.

Ez dira hauzo berdinean bizi ez eta kuadrila berdinean irtetzen, lagunak dira beraien artean eta hau da garrantzitsuena.

Hileroko fanzine bat da, 100 pztagatik bakarrik. Lehenengo zenbakia atera dute. Bigarren zenbaki bat kaleratzeko pres daude eta hil hontan aterako da.

Fanzine honekin lortu nahi dutena da beraien ideiak kaleratu, gizarte honetaz kexatu eta jendeaz hitz egitea. Ea beraien objetiboa lortzen duten. Ez dute biltzeko tokirik eta lokal baten bila dabiltza, horregatik norbaitek lagundu nahi badie beraiekin kontaktuan jar dadila. Ez dakigu beraien helbiderik. Baina.... Aurrera!

...ETA KITTO!-k GOMENDATURIK

Beraiek kaka diote; guk amen

Ez da denbora asko, bosteko talde honek zuzenean grabaturiko Lp-a kalera atera duela. Halere salgai dago duela gutxitik, beraien "ELLOS DICEN MIERDA; NOSOTROS AMEN" azken diska hau.

Datu modura, esan, OIHUKA argitaletxearekin dabiltzala lanean eta etxe honetan ohizkoa den moduan, grabaketak eta nahasketak, Lasarteko ELKAR estudioan eginak daudela, Jean Phocas-en eskutik. Aipatzekoa da azken honek egindako lana, zeren soinuari dagokionez emaitza dexente bat lortu du taldeak.

La Polla Records, dakizuen bezala, Evaristo (ahotsa), Charly (gitarra), Sume (gitarra), Abel (bajua) eta Fernandok (bateria) osatzen dute, Anjel, soinu teknikoaren laguntzaz. Eta azken diska honi buruz komentario bat eginez, esan beharra dago, osoki harturik, taldeak lehen Lp-an hasitako bide berdina jarraitzen duela baina hala eta guztiz ere ezin dira ukatu izandako aldaketak, azken hauek normalak bait dira urteak aurrera doazen neurrian. Aldaketa hauek aipatzekotan, gehien bat musikari dagozkienak izango lirateke; orain egiten duten musika, lehengoa baino bigunagoa dela esango nuke nik baina beste era bateko alaitasun batekin, eta hori bai, musiko moduan asko aurreratu dute.

Eta Evaristori buruz zer esango dugu ba; badirudi bere hitzetan, berari gertaturiko edo berak ikusitako gauzak erreflejatzen dituela, hau da, eguneroko gertaerak, eta esango dut "ke no se libra ni Dios!" egiten dituen kritiketatik. Guay tío!

ZER IKUSI HURA IKASI



FELIPE LOIOLA

FITXA TEKNIKOA:

Kamera: Minolta x 700
Objektiboa: Sigma 24 mm
Pelikula: FP4 ILFORD
Errebelatzaile negatiboa: Acutol
Papera: AGFA Record Rapid, 3. gradua
Errebelatzaile positiboa: Neutol WA

BIZPAHIRU HITZ:

. Argazki hau Gasteizko urtegi edo pantanoan atera dut. Sakontasun gehiago lortzeko tripodea erabili eta era horretan, argazkiaren elemendu guztiak, kamerarengandik hurbilen nahiz urrunen dauden guztiak, garbi azaltzen dira, ondo enfokatuta.

. (Argia, fotometroa itzalen gunean jarrita neurtu dut. Gero, negatiboak errebelatu guneen sistemari jarraituz.) Hau da egiten dudana: argazkia atera baino lehen, nik neure buruan dut urtegiaren enkuadre osoa handitua, zuri eta beltzean.

Argazkilaritzan oinarri-oinarrizkoena den araua darabilt: itzalak neurtu argazkia ondo ateratzeko.

Gero, laborategian paperera bidaltzean, erreserbak edo gune-izkutuak erabili izan ditut, zenbait guneri denbora gehiago edo gutxiago emanaz, uretako itzala lortzeko eta zerua iluntzeko.

Esandakoa kontuan, oraingoz badakizue zenbat denbora pasatu dudan argazki hau ateratzen.

DENBORA PASA

Hitzetik hitzera hizki bakarra aldatuz, ARTO hitza ESNE bihurtu.

A										→	E
R										→	S
T										→	N
O										→	E

JUANITO "TXOKO":

"Eibarrendako beti onena nahi izan dot"

Juanito "Txoko" dogu Eibarren txirrindularitza edo ziklismo munduan, ezaunik izatekotan ezaunenetakua. Berak esaten daben moduan: "ni hamen katuek be ezautzen nabe". Bera dogu Eibarko Arrateko igoeria edo subidia urtero-urtero 31 urtetan zihar organizau dabena. Berak diñonez bere nahixa beti izan da Eibarri ta Arrateri izena eta famia emotia.

Juanito "Txoko" 1965eko Arrateko Igoeriaren Saria banatzen. - Jacques Anquetil.

—Arrateko Igoeriaren antolatzaile historikua.

"Nik afiziñua banekan haundixa, afiziño haundixa nekan!! Eibarren gañera 3 fabrika euazen, onenak!! BH, Orbea ta GAC-ia. Oiñ bata be eztao. Len eitten zian Eibarren bizikletak, Eibarren len dana bizikletia zan!!

Neri Club Deportivo-rako etorri jetazen billa, 1.943-an dihar eiezten; etorri zian billa ta: -Juanito eh...hik afiziñua ta...hik eh...balio dok hau eitteko ta...- Halantxeik hasi nitzan lanian Club Deportivo-ko bizikleta komisiñuan. Hasi nitzan ta, bueno: Club Deportibuak orduan denporan eitten zittuan lau gauza: montañismua, atletismua, ziklismua ta pelotia. Besterik ez zeuan len: eskixa ta beste guztixak geruau etorri dia.

Ta halantxeik, 1.944-an eiñ neban lelengo Arratera subidia,...lelengua ez... lelengua barik laugarrena izan zan nik eiñ nebana baiña nik eiñ aurretik beste hiru eiebezen... ta ni laugarreneko Arrateko subidan sartu nitzan lelengoz organizadore. Ta segi, ta segi, ta segi... hogetamaika urte errezkadan egon naiz Arrateko subidia orgaizatzen.

Nik orduan denporan Eibarren, 96 tailler bixitatzen nittuan dirua etaratzeko. Ta gero... honek be...bizikletenak be laguntze ezten. Pixkanaka-pixkanaka juan giñan, gañera zera...lagunak be onak nekazen komisiñuan.

—Arrateko Igoeriak fama haundixa euki dau, ezta?

"Bai, bai...Espaiñian ta kanpuan ta danian. Ta gero ba...ziklismuak haiñ indar haundixa hartu eban da...

Gero zera: fabrikak be bastante laguntze ezten ze...ikuste eben fama haundixa emoten nebillela herrixari, karreriari ta...ta ni Arratekin enamorau bat izan naiz beti. Beti Arrateri zer emongo ona ta zer emongo: beti Eibarri ta Arrateri izena emon guran.

—Zelakua izaten zan karreria?

"Fama haundixa hartu eban batez be Bahamontes eta Loroño etorri zianian: pike haundixa egoten zan bixak etortzen zianian bai euren artian baita herrixan bertan be. Gero beste korredore mordua be etortzen zian, guk, karreria inbitaziñuakin organizatzen genduan beti. Geuk apartatzen genduazen korredore onenak!!, baiña pagauta danak, danak pagauta etortzen zian. Ta holantxe hasi zan karreriori izena hartzen.

Gero hasi nitzan kanpotarrak ekartzen: Anquetil, Poulidor, Charly Gaul, Janssen, Gimondi...horrek zian munduan famosuenak orduan. Baiña hori zala ta presupuestuak be gora zoiazen. Anquetillek 1.963-an kobratzen zittuan 100.000 pezeta, gaur egunian hori diruori 1.500.000 pezeta litzakez gitxienez. Hori danori Club Deportibuak pagatze eban. Jentiak ondo responditze eban ta... hainbeste urtian ez genduan sekula dirurik galdu!! Behin bakarrik galdu zan apurren bat ta bizikleta fabriketakuek emon zesten zulua tapatzekua. Bestela ondo, jentiak ondo responditze eban. Urte bat egon zan bildurgarrixa izan zana: Arrateko subidako karreriari hasiekerarik emoten kapitan de trafikuak ez zeban laga jentia larregi eualako: bai kotxe, motor, pertsona euazen han. Ta ordu t' erdixan, ha librau zan arte, karreria urten eziñda egon zan. Ha izan zan zoroetxia!! Kabiru ezinda karreteran!! Ta gero Ixuan eta Usartzan... ha bildurgarrixa zan!!

Karreria amaitzen zan da...setienbrian hasten giñan martxorako karreria prestatzen.

—Baiña izan zan denpora bat Arrateko subidia eiñ etzana, zeaittik?

"Neri batek esaeztan: - ezeizu pentsau inpreszindiblia zarianik-ta bueno!! ba...eizue zeuok orduan!! Hor dakazuez atiak zabalik eta!!!

Nik direktiban, Club Deportivo-ko direktiban 31 urte eiñ nittuan ta Club Deportivo-ko presidente modura be bost urtetan egon nitzan. Ta holaxe nik laga neban 75-ian eta 76-xan ez zan eiñ, 77-xan be ez. Ta gero, komisiño barrixa sartu zanian hasi zan berriro gauzia. Neri esaezten: - Juanito, hasi eiñ bihar haiz berriro-baiña nik: - ni kantsau eiñ nok, kantsaueixa naok... ni lagatzera najoiak. Ta halantxeik laga najuan, baiña nere urtietan, neretako, Arrateko subidia bazkarixa baño hobia izaten zan. Frantzian be hiru buelta eiñ nittuan motorrian, Luxenburgori be emon notsan bueltia, Marruecosi be bai, eta Espaiñari bederatzi buelta eiñ dotsaraz. 21 urtian ibilli nitzan motuan, baiña beti karreriakin zerikusixa zekan zeozekin."

—Nundik datoz zure afiziñua ta gatxixena?

"Niria...itzela, itzela!! Txikittan be ni bizikletan eh... malabaristia nitzan: sillian gaiñian ta, gero hor Untzagan eitten nittuan esibiziñuak ta... gero sartu jatan hori benenuori ta...akabo!!!

Gatxixenana nik hartu ta barriztau neban tabernatik etorri jata. Oiñ Txoko tabernia daon lekuan len Cafe Arrate zeuan ta nik ha hartu, barriztau ta... Txoko izena jarri notsan ezkiñia eittebalako ta...euskeraz badakixue Txoko berbian esanguria. Ta hortitxik dator neria. Baiña gañera Eibarren beti egon da ohittura gatxixena edo motia ipintzekua. Halantxe diño txiste batek be: -etorri zala Eibarrera erdeldun bat ta esaebala: aquì todos con mote y yo sin mote ta... halantxeik "sin mote" motia jarri etsen hari be."

"Fama haundixa hartu eban batez be Bahamontes eta Loroño etorri zianian: pike haundixa egoten zan bixak etortzen zianian bai euren artian baita herrixan bertan be. Gero beste korredore mordua be etortzen zian, guk karreria inbitaziñuakin organizatzen genduan beti.

- **31 urte errezkadan egon naiz Arrateko subidia organizatzen.**
- **Behin, kapitan de trafikuak ez zeban laga karreriari hasikerarik emoten jentia larregi eualako.**
- **Neretako, Arrateko subidia bazkarixa baño hobia izaten zan.**

Careaga
Bitxi eta Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak
Bidebarrieta, 10 Tfnoa: 11 80 45

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
BIDEBARRIETA 14, 16,
TFNOA: 11 13 17
11 62 28

Jeronimo
Drogeria
Jostailu eta opari-artikuluak
Calbeton, 11 Tfnoa: 11 10 14

Larramendi
ETXERAKO ELEKTRATRESNAK
ESTAZIÑO, 6 T Tfnoa: 11 30 11

IRASUEGUI
GRAFIKOAK
Liburu, Katalogo, aldizkari, propagandaren... inprimaketa
B. Sarasketa, 6 Tfnoa: 12 02 46
EIBAR

"Bonbonera"

Itzaltzen ari den zuzia

Eibarko herriak bizi dituen azken urteetako gertakizun azpimarragarrien artean koka dezakegu "Bonboneraren" fenomenoa. Elkarte hau, Eibarko futbol taldearen jarraitzaile peña bat izatetik, jende kopuru izugarriak mugitzen zituen erakunde bat izatera heldu zelarik. Eibartar guztiok ditugu buruan talde honek antolatutako ekintza nabarmenenak: 3.000 eibartar donostiaratu edota hainbat bider aipaturiko Badajozerako bidaia, gure herriaren mitologian sartu direnak. Azken boladan, aldiz, gauzak ez dira hain baikorrak agertzen elkarte honendako, mundu guztiak krisialdi batez hitz egiten du, baina, larrialdi hau puntuala edo definitiboa izango da?

"Bonboneraren" baitan animoak ez dira oso haundiak, egia esateko. Nahiz eta gurekin mintzo diren guztiak peña hau ez dela desagertuko esan, inork ez du oso argi ikusten nola aterako den bizi duen loalditik. Potxo Romarateren ustez, jendea aspertu egin da, apur bat behintzat, "Bonbonerarekin".-"Izan leike, bai. Akaso ekintza berberak askotan errepikatu ditugu eta jendea aspertu egin da gauza berak eginez. Arazo hori konpontzeko, guk sarri luzatu dugu laguntza eske deialdiak baina inork ez du erantzun. Beraz, ideia berriak ez dira agertu".

Baina gaitzak ez dira sekula bakarrik etortzen, eskutik helduta baizik. Urrezko urte batzuk bizi eta gero, Eibarpoola egoera larrian dago, kategoriari ezin eutsirik. Kirolaren munduan printzipio bat oso zabaldua dago: "Emaitza txarrek ikuslegoa uxatzen dute". Potxo Romaratek ere horrela ikusten du: "Bai, bai, hala da. Ekipoa gaizki doanean jendearen ilusioa epeltzen da, hori beti izan da horrela, tristea bada ere".

Azken hilabeteetan makina bat peña agertu dira Eibarren inguruan eta Potxorentzat positiboa da ("guk urte asko daramagu mobida honetan eta, denbora pasatu denez, orain beste erresponsabilitate batzuk ditugu, eta ezin dugu hainbeste denbora erabili kontu hauetan. Beraz, ona da jende berria agertzea") baina horrek batasuna kendu dio peñari. "Bonboneraren" buru izandako beste batek, Roberto Bergarak, arazo bera izan zuen, denbora eza, eta taldea utzi behar izan zuen. Bere ustez "problema bakarra taldearen egoera kaxkarra da, jendea tristetuta bait dago. Hori konpondu ezkero gauzak bere onera itzuliko dira".

Beraz, inork ez du uste "'Bonbonera desagertuko denik, nahiz eta agian odolustutzen ari den emekiemeki. Ipuruan ixiltasuna "entzuten" da partiduen zehar eta peñak antolatutako azken ekitaldiak ez dute harrera onegia jaso. Dena den, gure ustea agertzea zilegi bada, arduradunek ekintzak antolatzen jarraituko duten bitartean, "Bonbonera"k aurrera segituko du, nahiz eta batzutan errenka. Baina antolatzaileak aspertuko direnean...

BONBONERAREN AFIZIOAREN JEITSIERARI BURUZ ZE ERITZI DAUKAZU?

1. Susana Carreras. 31 urte. Kareagan lanean.

"Ez dut partidu bat bera ere galtzen, nahiz etxean nahiz kanpoan jokatu. Gezurra da Bonbonera flojo dabilela, inoiz baino indartsuago ikusten dut".

2. Oskar. 25 urte. Lanean.

"Lehen Bonboneroa nintzen, giro polita sortzen zen partidoetan. Orain ekipoa gaizki doanez indar haundia galdu du, aliziente falta ikusten dut. Martxa honetan jarraitzen badu Bonbonera desagertu egingo da".

3. Juana Agirre. 60 urte. Harakina.

"Ezin dut gai horri buruz askorik hitzegin, futbola ez zaigu ez niri ez familiakoei atsegin, ez gara futbolzaleak, beraz ez ditut Bonboneraren gorabeherak ezagutzen"

4. Javier Canton. 22 urte. Lanean.

"Lehen oso jarraitzailea nintzen, anbiente demasa egoten zen, orain estali duten aldean, fenomeno pasatzen genuen. Baina orain ez dago saltsarik, jende oso gaztea joaten da, edo bestela puru galanta erretzen dutenak".

5. Ana Isabel Cid. 20 urte. Ikaslea.

"Orain arte oso ospetsuak izan dira, Eibar Bigarren Mailara igo zen garaian. Baina orain flojo samar dagoenez jendea ere apaldu egin da; hala ere, benetako afizioa dutenek ez dut uste partidu bat bakarra ere galtzen dutenik".

6. Jose Luis. 48 urte. Lanean.

"Afizioa jeitsi dela argi dago, jendeak ez dauka lehengo humore hura, ekipoa gaizki badoa afizioa ere moral gutxiagorekin aurkitzen da. Ni sozio edo bazkidea naiz, baina igartzen da jende falta, gehinbat irteeretan".

7. Jose Luis eta Maria Jose. 27 eta 26 urte.

"Anbiente ederra ematen zion herriari. Jendeak zerbait desberdina zeukan egiteko, geure herri honetan ez bait dago aukera handirik bestela. Fama haundia izan du, nahiz eta gu aldendurik egon. Ez zaizkigu talde haundiak atsegin".

8. Teresa. Etxekoandrea.

"Futbola beheruntz doanean jendea ere desanimatu egiten da. Hala ere, Bonboneraren desagerketa dela eta ez dela, nire ustez ez da sekula halako gauzarik gertatuko, futbolak jende asko bait du jarraitzaile bezala".

bankoa
INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA
ZULOAGATARREN, 7 — Tfnoa: 11 39 40

MAIATZAKO AGENDA

ERAKUSKETAK
Udaletxeko Kultura Aretoan.
4tik-15ra: Miguel Angel Lertxundi. Eskultura.
17tik-23ra: KIMA KOLEKTIBOA-MARRAZKI BIZIDUNAK. Erakusketa kolektiboa. (Euskal Jaiaren barruan)

IKASTAROA: Makramea. Hasiera: Maiatzaren 7an. Astelehen eta Asteazkenetan, 7tatik 9retara. 20 ORDU. "C.Fam. y Social".

KIROLA
ZIKLISMOA.
Eibarko Klub Ziklistak antolatuta:
6an: PROMESEN KRITERIUMA. 2. Urteko Kadeteak.
MENDI IBILALDIAK
6an: Finalista eguna.
19an: Usategieta Mendatea-Ilarregi.
UMEENTZAKO IRTEERAK
6an: ERNIO (Errezil). IRTEERA: Goizeko 8'30etan. BUELTA: Eguerdirako. IZENA ematea: K.Deportiboan. Eskola bakoitzean edo 111904 telef. Astelehen eta asteartetan 7'30etatik 8'30etara.
KONTZERTUA
25an: Arratsaldeko 7retan, ostirala, Kontserbatorioan. Maruxa Llorente, Piano-jolea.
INFORMAZIO BULEGOA: 8tik aurrera. Astearte eta ostegunetan, arrats. 4retatik 6retara bitartean zabalik egongo da. 90ko Udari dagokion informazioa emateko.
LEHIAKETA
San Juanak 90, Kartel Lehiaketaren orijinalak emateko epea 19rarte.

TEATROA
Maiatzaren 2tik aurrera, Deba Beheko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren VI. edizioa ospatuko da. Emankizunak eskola egunetan izango dira arrats. 3retan. Unibertsitate Laboraleko Aretoan. Bertan Eibarko 8 Ikastetxeetako ikasleek lanak aurkeztuko dituztelarik, baita Mutriku, Deba, Elgoibar eta Ermuakoek ere.
Osagarri bezala hainbat Talde Profesionalek parte hartuko dute ((Txotxongillo, Areto/Kale Antzerkia...).

SANTA KRUTZ JAIAK
5an: Kanpaijotzea. Erromeria.
6an: Herri Meza. Jolasak Umeentzat. Txirrindulari lasterketa (Mountain-Bike), Bertsolari/Trikitilariak.
Bazkaria Uzartzan. Sokatira eta txinga-eruate. (Gizon eta emakumeentzat. Usartzan Txalaparta eta amaitzeko erromeria Jauregi anaiekin.

SAN ISIDRO JAIAK / ARRATE
14an: Kanpaiak jo eta etxapligoak jaurtitzea.
15ean: Meza (Narbaiza eta Egileor bertsolariak, Jauregi Anaiak Trikitilariak) Prozesioa Arrateko Zelaian.
Anai Arteko Bazkaria. Baserritar Nagusienei sariak banatuko zaizkie.
Arratsaldean, San Isidro Sari Nagusiaren Idi probak (Elgoibarko Soarte, Soraluzeko Txaxoi, Eibarko Altzubarren eta Mendigoitxi) Sari Banaketa eta ondoren amaitzeko, erromeria Jauregi anaiekin.

DIA DAS LETRAS GALEGAS
5.: Kirolak. Haurrentzako jolasak.
6.: J.D. AMAÑA-GALIZA ETXEA (Emakumeak) Esku-Baloi partidua.
7,8,9,10.: Eibarko auzoetan zehar LOS GALAICOS Taldearekin BERBENAK.
11.: KALEJIRA (Gaitak). BERBENA Gauean Urkizun. DUO PLAENTXI, RAICES GALEGAS, RAICES RIBERAS.
12.: X. GALIZIAR LIBURUEN ERAKUSKETA. Gauean BERBENA Urkizun.
13.: Orbea Frontoian. PELOTA PARTIDU BEREZIAK. AZKEN JAIA XOLDA taldearekin.
5tik-13ra: GALIZA ETXEAN Erakusketa. (J.M. Agirre). Galiziar produktuen dastaketa.

XXV. EUSKAL JAIA
EGITARAUA
Maiatzak

5 Larunb.: Gaueko 9etan Orbea Pilota lekuan afari popularra: . Bertsolariak/Txistelariak/ZIGOR Fanfarria.
8 Astear.: GERRATE KARLISTAREN KRONIKA Filma. Eskola Armerian. Arrasts. 7'30etan.
10 Osteg: EUSKAL HERRIKO MUSIKA TRESNAK, Hitzaldia: J.Mª. BELTRAN. Udaletzean Arrats. 7etan.
15 Astear.: EUSKAL KANTAUTOREAK, Hitzaldia: P. ARISTI. Udaletxean. Arrats.7etan.
18 Ostir.: ANTZERKIA. "ETA OHEA EGIN GABE" . HIKA Taldea. Untzagan. 8etan.
19 Larunb.: Umeen Jaialdia JAIONE-FERNANDOrekin. Untzagan. Arrats.6'30etan. Gaueko 10etan. ZORTZIKO Euskal dantzen ikuskizuna. Ipuruako Polikiroldegian.
20 Igand.: EIBARKO DANTZARIEN EGUNA
24 Osteg.: AGOTEAK, JUDUAK ETA IJITOAK EUSKAL HERRIAN. Hitzaldia: Alizia STÜRTZE. Udaletxean. Arrats. 7etan.
27 Igand.: XXV. EUSKAL JAIA

NORK - ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpurua.
Joseba Zinkunegi.
Mireia Ugarteburu.
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Jose Luis Gorostegi.
Argazkilariak.
José Valderrey.
Mireia Ugarteburu.
Maketazioa:
Jose Valderrey.
Komikia:
Ander Gisasola
Inprimaketa:
Certu.